

6. BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure plataforman bezeroaren partaidetza ezinbestekoa da, izan ere, bezeroa izango da arduradun ea zein film edo telesail ikusiko duten. Ondorioz, bezeroak zenbat eduki ikustea erakitzen duenaren arabera, gure diru-sarrerak ezberdinak izango dira. Hori dela eta bezeroarengana gerturatzea funtsezkoa da. Lehenik eta behin, aipatu behar da gure harremana bezeroarekiko gure aplikazioaren edo webgunearen bidez izango da, hau da, zerbitzu automatizatua izango da. Izan ere, hauen bidez bezeroak gai izango dira, plataforman izena emateko eta hortik aurrera aukeratutako film eta telesail kopuruaren arabera, dagokien kuota ordaintzeko. Horrenbestez, bezeroarekiko edukiko dugun harremana autozerbitzuan oinarritzen da.

Bestalde, erakundeak kontuan izan beharreko beste bezero batzuk erakundeak dira. Erakundeak bezero partikularren aldera, bezero finkoak dira, hauek gure plataformatik eduki zehatza kontsumitzeen baitute, aldiz, bezero partikularrek aukera selektiboa egiten dute ea zein ikus-entzunezko. Horren ondorioz, plataformaren barruan atal berezi bat eskaini genuke helburu didaktikoak dituela oinarri gisa. Atal berezi hau "StreamVerze Kids" izena edukiko luke, eta hau ikastetxeei eta eskatzen duten familiari eskeini genioke atal berezi hau. Horrez gain, ikastetxeek haurrentzako zuzendutako atal honetara sarbide mugagabea izateko, hauek hilean bost euroko tarifa bat ordaindu beharko luke eduki eskusibo hau eskura izateko.